

## Gaurko kontradikzioak

Deia, 1977-07-16.

Uztailak 14.

Gaur 83 urte agertu zuen Sabin Aranak ikurriña lehenengo aldiz. Ikurrin honen bidez, Herri baten nazionatasuna adierazi nahi izan zuen.

Ez dugu gure herriaren gogo hau erakusteko askatasun haundirik izan. Gaur 187 urte Frantses-Iraultzak irabaziaz, gizateri osoarentzat *Liberté*, *Egalité* eta *Fraternité* ohiukatu zituen.

Eta geroztik, urtero ospatu izan da askatasun egun sakratu hau.

Bi egunak, askatasun berdinez ari ote dira?

Teoriak oraingoz utzi, eta ikusi frutuak:

1.- Frantziako lehendakari den Giscard D'Estaing jaunak jai hau harmadaren desfile haundi batekin ospatu du; "nazional batasunaren eguna" da hau, esan du. Noski Frantziako estatuan lotuak dauden Nazioez ari da.

Honek, noski, iraultza haren "fraternité" anaitasun zabalari egoak asko moztu dizkio.

2.- Irun-dik ajentziak mundu guzira zabaldu dute gaur: "Askatasunaren Ibilaldia" Ondarribia-tik abiatu eta Hendaia-ko zubira heldu denean, prantsesek geratu arazi egin du. Polizi harmatuak "Liberté"-ren "muga sakratua" zaintzen zeuden. Herri bat zatitzen duen muga da "askatasuna"-ren adierazle.

Ondorio bat hemen:

Sabin-en nazio-ikurriñak Euzkadi-ren zatikeriarekin bukatzeko saio berri bat egin du; Frantzia-ko "fraternité" noraino irixten den erakutsi du, eta, gainera, *Pravda* rusofizial-demokratikoak bere bedeinkapena ere eman dio: "Egun hau, tradizio iraultzaile eta demokratikoekin aberasten diren guzientzat da zoriontsua".

Ez dut uste hitz berekin gauza bakar batez ari geranik.

Egun bakar hontan gure gizartean sufritzen ari garen kontradikzio asko, gehiegi, nabarmendu da.